



Komunitatea, nazioa, errepublika



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Euskal Herria bere osotasunean Errepublikak libre eta demokratiko moduan antolatzea da herritar askoren nahia. Aurreko batean apuntatzen nuen berton, aurreko euskaldun belaunaldi bat indartsu saiatu dela nazio proiektu osatua diseinatzen, hainbat arlotan: izan oinarri etiko-filosofikoak edota teoria politikoa garatuz, izan hizkuntza eta kulturaren eremuetan plangintza bateratuak eskainiz, izan alderdi estetikoak bera etika sozialari elkarlotuz. Arkitektoek ez dute huts egin, nioen orduan, baina etxegileok ez dugu asmatu.

Akatsak zuzendu eta naziogintzan modu egokian bideari berrekin nahian, ari gara orain nazio proiektuaren fundatzaileen lana berraztertzen; Aresti eta Azurmendi, bakoitzaren ekarpenean zein bien arteko elkarlanean, kasurako. Horretan gabiltzala, agertu zaigu bidera Joseba Sarrionandia bera, eta Joxe Azurmendiren kontzeptu kutun bat gogorazi: *herritxikitasuna*.

Herritxikitasunaren kalteak aipatu dizkigu Sarrionandiak, tartean, ez gara gauza izan estrategia kulturalan elkartu eta batera jokatzeko. Eta hari horri jarraiki, hasi naiz errepasatzen gure komunitate honen garapenean azken mende erdian (erreferentzia bat hartzearen) bizi izan ditugun mugarrak: egunotan gogoratzen dugun Burgosko auzia eta hark ekarri zigun guztia; euskara batuaren sormen-prozesua; Durangoko azoka edota Korrika zein AEK;

Euskaldunon
populu honek badu
erabakitasunetik eta
kemenetik nahikotxo.
Eta ez dugu, hala ere,
gailur egiten. Zeren
gabezia gaude?

aspaldiko borroka antinuklearra eta euskal kostalde nuklearraren aurkako herri mugimendu garailea; *Jakin*, ARGIA eta *Euskaldunon Egunkaria* erditu zituzten herri-oldarraldiak; preso politikoen aldeko mugimendu zibilaren kateatze luzea; mugimendu feministaren olde indartsua; sindikatu abertzaleen ekinaldia edota kultur eremuetako sortzaile eta langileen emankortasuna pandemia/sindemia guztien gainetik; Euskaraldia... Eta ondorioztatu egiten dut, euskaldunon populua honek baduela erabakitasunetik eta kemenetik nahikotxo. Eta ez dugu, hala ere, gailur egiten. Zeren gabezia gaude?

Azter ditzagun, bada, esfortzu kolektibo horren ondorioz erditu diren erakundeak. Aldi bateko indar hori guztia lorpen iraunkorra bilakatzeko balio behar duten tresnak, hain zuzen ere: Euskal Telebista publikoa, sortu zeneko helbu-

ruen bidetik doa? Legebiltzarrak eta gobernuak, benetan lortzen dute euskaldunon nahia lege bihurtu eta finko egitea? Euskararen lege desberdinek, kasurako, ematen diote euskarari oinarri sendorik gizartean garatu ahal izateko? Zein da euskal eremuetan nagusitu den komunikazio-sistema? Eta unibertsitateetan, lortu dugu Euskal Herria subjektu zein objektu nagusi izatea zientziaren, arteen, jakintzaren arloetan?

Jendarte oso konplexua da gaur eguneko hau; elkarbizitza demokratikoa, ez beste ezer, izan behar da giltzarri, bizi gaituen komunitate aniztun honetatik nazio demokratikoa sortu ahal izateko. Ekonomia, nahitaez sozioekonomia izan behar duena, helburu horretara abiatu beharko dugu. Egin ditugun saioetan, kooperatibak, kutxak, industria ereduak... norabide horretan doaz orain?

Zer nazio mota nahi dugu? Zertarako nazioa? Sarrionandiak, Azurmendirekin elkarriketa intelektualean, nazioa batez ere komunikazio espazioa dela diosku, eta komunikazio-komunitatearen definizioa dela nazioaren beste edozein definizio baino funtzionalagoa. Hori onartzeko prest nago neu ere, komunikazio-komunitatearen ardatza, gaur egun ere, hizkuntza dela kontsideratzen badugu, eta presente dauden hizkuntzen ugalkortasuna gorabehera, gurean euskara dela territorio librea antolatzei aukera bakarra. *Euskal errepublika euskaldun aburuanitza*. ●